

"Mala Stranako ipuinak"
Jan Neruda
euskaratzailea: Fernando Rey
Ibaizabal, 2001

Jan Neruda (1834-1891) Pragako idazle txekiarra da. Pragako beste idazle batzuek ez bezala, txekieraz idatzi zuen. Idazle honi omenaldia eginez hartu zuen Neftali Reyesek Pablo Neruda goitizena. 'Mala Stranako ipuinak' izeneko liburu honetan izenburuan aipatzen den Pragako auzo horretan gertaleku duten narrazio batzuk biltzen dira. Errealismoari uko egin gabe, hainbat leku, pertsonaia eta gertaerak ohiturazko literatura gogora dakarte: tabernak eta hango istorioak, ordena gorde behar duten goardiak, era guztietako dendariak.

Askotan gertaera xume batzuk baino ez dira kontazen, baina idazleak jakin du gertaera horien aurrean bere ikuspuntua ironia pixka batez janzten. Bestetan, idazlearen gaztaroko eta haurtzaroko istorioak ere jaulkitzen dira, hala nola mutilek hiritik Austriako soldaduak botatzeko antolatu zuten konspirazioa, denbora igarotakoan erdi absurdo, erdi mitiko bihurtzen dena. Baina oroimenak nostalgia sortzen du, betiko desagertu den mundo baten aurrean gaudela erakutsiz, orduko jendea eta kaleak, batez ere jendeak, ezin baititu idazterakoan aurrean dituenekin identifikatu. Ez dakit itzulpenaren efektua den, baina liburuaren lehen argitarapena 1878.ekoa den arren, kontaerez askoz modernoagoak dirudite.

El Correo, 2002-03-20